

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

646.000 euroko laguntza-deialdia egin da adineko pertsonen arloko entitateak finantzatzeko

Eskaera-epa datorren martxoaren 13ra arte zabalik izango da

Jueves, 12 de febrero de 2015

Gizarte Politiken Departamentuak 646.483 euroko [laguntza-deialdia](#) egin du, alde batetik, adineko pertsonen arloko entitateen funtzionamendua finantzatzeko, eta bestetik, haien autonomia sustatzeko eta mendekotasunik ez izateko bideratutako jarduerak finantzatzeko.



Interesa duten entitateak irabazi-asmorik gabekoak izateaz gain, Nafarroan bertan egon behar dute, eta laguntzak martxoaren 13ra arte eska ditzakete Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren erregistroan (González Tabalas kalea, 7, Iruña), bai eta Nafarroako Gobernuko gainerako [erregistro](#)etan eta [30/1992 Lege](#)an ezarritako tokietan ere.

Zehazki, Nafarroako Aldizkari Ofizialen [berriki argitaratu](#)tako deialdi horren oinarriek bi diru-laguntza mota ezartzen dituzte: elkartegintza sustatzea eta programak garatzea.

Lehen modalitaterako 445.000 euro erabiliko dira, eta diru horrekin oinarritzko jarduerak finantzatuko dira, esaterako: harrera, informazioa eta orientazioa, dibulgazioa eta sentsibilizazioa, adinekoentzat, haien familientzat nahiz gizarte guztiarentzat izango direnak. Langile eta funtzionamenduko gastuak diruz lagunduko dira.

201.483 euroekin finantzatutako bigarren modalitatea jarduera-programak babesteko da, eta haien asmoa adinekoen mendekotasuna saihestea eta beren autonomia sustatzea da. Besteak beste, deialdiak honako hauetara bideratutako ekimenak jasotzen ditu; zahartze aktiboa, kulturako ikastaro eta tailerrak, hitzaldiak edo klubak egun berezien ospakizunak, adinekoen elkarteak eta federazioak.

Gainera, modalitate honetan sar daitezke, adinekoen arloan bakarrik esku hartzen duten gizarte-erakundeak, eta gizarte-zerbitzuen arloan programak garatzen dituztenak; erakunde horiek oinarrituko dira, adibidez, adineko pertsonaren banakako arretan, bizitza independentearn

sustapenean edo adinekoei egokitutako kirolean.